


# Funtsezko elkarteak




Proiektua fase desberdinetan banatuko dugu. Lehenik, aplikazioaren ardatz nagusirako; hots, aparkalekua bilatu ahal izateko sentsoreak instalatzearekin hasiko gara. Lehenik lurrazpiko aparkalekuetan eta gero kalean. Lehenik Donostian eta geroago Euskal Herri osora zabaltzen saiatuko gara. Beraz, sentsoreak instalatzeko, hamar langile kontratatuko ditugu, astebeteko lana burutzeko. Hauen kordinazioaz Manex bazkidea arduratuko da, langileekiko harremanaz alegia.

Sentsoreek funtzionatu dezaten, ezinbestekoa da energia iturriren bat izatea, elektrizitatea behar-beharrezkoa izango dugu.

Horregatik, Ainhitzek kudeatuko du elektrizitatearen iturria. Hornitzaile nagusia, “Goi Ener” izatea nahiko genuke, energia berriztagarria erabiliz sentsoreek funtziona dezaten. Goi ener Gipuzkoako kooperatiba bat da, eta haien esanetan, “kooperatibaren helburu nagusia % 100 energia berriztagarriko iturburua duen elektrizitatea merkaturatzea da, eta, horrekin batera, eredu energetikoa aldatzea, sentsibilizazio eta trebakuntza-lanak eginez”. Bestalde, sentsoreak erosiko dizkiogun enpresa ere hornitzaileetan kokatuko genuke.

Aplikazioaren diseinuaz eta sortzeaz arduratuko den enpresa txiki bat subkontratatzea ere erabaki dugu. Iruditzen zaigu gu alderaezina dela haiek dituzten ezagutzak, esperientzia eta trebeziak. Eta gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da marketinaren eta sare-sozialen erabilera. Gainera, bezeroaren profilari erreparaz gero, sare-sozialetan marketin kanpaina eta estrategia ezberdinak erabiltzeak erabateko zentzua izango luke. Diseinu fresko, sinple eta erakargarri bat egiteaz arduratuko da enpresa. Honen guztiaren kudeaketaz arduratuko da Oier bazkidea.

# Funtsezko elkarteak



Horrenbestez, proiektuak aurrera jarrai dezan, nahitaezkoa da bazkideak eta hornitzaileak izatea, eta haiei karguak ematea. Park Fast-en bazkidetza bost kidek osatzen dute, aurretik azaldutako hiruei, Iker, kontabilitateaz arduratzen da eta Beñat, aldiz, bezeroen arretaz eta giza harremanez arduratuko dena gehitu behar baitzaizkie. Talde lana da gure helburu nagusietako bat, kooperatiba bezala lan egitea eta emaitza politikak lortuko ditugulakoan gaude.